



MEC 2026

MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUAK ETA MERKATARITZA-JARDUERAREKIN LOTUTAKO ZERBITZU JAKIN BATZUETAKO ESTABLEZIMENDUAK MODERNIZATZEKO LAGUNTZEN AGINDUA AZALTZEKO GALDE-ERANTZUNAK

1.- Nola eta non eskura dezaket laguntza?

Soilik bitarteko elektronikoen bidez, telematikoki; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen bidez (<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1010113>), onartutako identifikazio elektronikorako bitarteko batekin (<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>).

2.- Zein da laguntzaren xedea?

Txikizkako merkataritza-sektoreko merkataritza-establezimenduak modernizatzea eta hobetzea, diruz lagundu daitekeen aldian (2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 15era) egindako inbertsioak finantzatuz (eraberritzeak, obrak, ekipamendua, altzariak, ekipo informatikoak eta abar erostea).

3.- Zenbatekoak dira deialdi honen baliabide ekonomikoak?

4.654.000 eurokoak.

4.- Nori zuzentzen zaio laguntza?

Honako hauei: norberaren konturako langileak edo autonomoak, ondasun-erkidegoak, sozietate zibilak eta mikroenpresak eta enpresa txikiak; Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza soziala eta fiskala dutenak; eta jarduera nagusia Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) honako epigrafe hauetan kokatuta dutenak:

Txikizkako merkataritza:

- 641 Fruituen, barazkien, ortuarien eta tuberkuluen txikizkako merkataritza.
- 642 Produktu hauen txikizkako merkataritza: haragia eta hondakinak, haragi-gai eta haragiki landuak, arrautzak, hegaztiak, abeletzeko untxiak, ehizakiak, eta horien ekoizkin eratorriak.
- 643 Arrainen eta arrantzako eta akuikulturako bestelako ekoizkinen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.
- 644 Ogi, pastel, gozoki eta antzekoen eta esne eta esnekien txikizkako merkataritza.
- 645 Mota guztietako ardoen eta edarien txikizkako merkataritza.
- 646.1 Era eta forma guztietako tabako-laboreen txikizkako merkataritza, saltoki orokorretan, berezietan eta barnekoetan egiten denean.
- 646.2 Era eta forma guztietako tabako-laboreen txikizkako merkataritza, saltoki orokorren aldi baterako hedapenetan egiten denean.
- 646.3 Era eta forma guztietako tabako-laboreen txikizkako merkataritza, saltoki osagarrietan egiten denean.
- 646.4 Tabako-laboreen txikizkako merkataritza, salmenta errekargudunerako baimena duten merkataritza-establezimenduetan egiten denean.
- 646.6 Era eta forma guztietako tabakoaren txikizkako merkataritza, salmentarako estankorik ez dagoen udalerrietan.
- 646.7 Baimen bereziak dituzten ezindu fisikoek egindako tabako-laboreen txikizkako merkataritza.
- 646.8 Erretzaileentzako artikuluen txikizkako merkataritza.



- 647.1 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako salmenta, establezimendu saltzaile duntan.
- 647.2 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko araubidean nahiz araubide mistoan, saltzeko gelak 120 m² baino gutxiagoko azalera duenean.
- 647.3 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko araubidean nahiz araubide mistoan superzerbitzutan, hala hartuta saltzeko gela 120 eta 399 m² artekoa denean.
- 651 Ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritza.
- 652.1 Sendagaien, osasun-produktuen eta higie pertsonalerako produktuen txikizkako merkataritza, farmazia-bulegoetan egin.
- 652.2 Drogeriako, lurringintzako eta kosmetikako produktuen, garbiketako gaien, pinturen, bernizen, disolbatzaileen, paperen eta dekoraziorako beste ekoizkin batzuen eta kimikako ekoizkinen txikizkako merkataritza.
- 652.3 Lurringintzako eta kosmetikako ekoizkinen eta higie eta garbiketa pertsonalerako gaien txikizkako merkataritza.
- 652.4 Belar-dendetako landareen eta belarren txikizkako merkataritza.
- 653 Etxeko ekipamenduen eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza.
- 654.2 Lurreko ibilgailuentzako osagarrien eta ordeko piezen txikizkako merkataritza.
- 654.5 Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (salbu eta etxeko aparatuak, bulegokoak, medikoak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak).
- 654.6 Mota guztietako ibilgailuetarako pneumatikoen, banden eta aire-ganberen txikizkako merkataritza.
- 656 Altzarien, jantzien, etxean erabiltzeko jantzi eta tresna arrunten eta antzeko ondasun erabilien txikizkako merkataritza.
- 657 Musika-tresnen eta horien osagarrien txikizkako merkataritza.
- 659 Bestelako txikizkako merkataritza.
- 662 Txikizkako merkataritza mistoa edo integratua.
- 691.1 Etxerako artikulu elektrikoaren konponketa.
- 691.9 BISGko kontsumo-ondasun zenbaiten konponketa.

Merkataritza-jarduerari lotutako beste zerbitzu batzuk:

- 971 Garbitegiak, tindategiak eta antzeko zerbitzuak.
- 972 Ile-apaindegiak eta edertasun-apaindegiak.
- 973.1 Argazkigintza-zerbitzuak.
- 973.3 Fotokopiagailuen bitartez agiriak kopiatzeko zerbitzuak.
- 975 Markogintza-zerbitzuak.

5.- Zer da JEZ?

Egiten duzun jarduera ekonomikoa identifikatzen duen kodea da (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga).

6.- JEZren 5. oinarrian banakatuta ez dagoen epigrafe batean alta emanda banago, diruz lagundu daitekeen jarduera izango litzateke?

Bai. Adibidez, 659 epigrafearen barruan (Bestelako txikizkako merkataritza) diruz lagunduko lirateke 659.1etik 659.9ra bitarteko azpiepigrafeak (zigiluak eta bildumak, bulegoko altzariak eta ekipak, aparatu mediko/optiko/argazkigintzakoak, liburuak eta paper-denda, bitxigintza



eta erlojugintza, jostailuak eta kirol-artikuluak, haziak eta landareak, sex-shop, eta zehaztu gabeko beste produktu batzuk).

7.- Zenbat denbora lehenago egon behar dut JEZn alta emanda laguntza eskatzeko?

Eskabidea aurkezten den egunean.

8.- JEZren epigrafe batean baino gehiagotan alta emanda banago, zein adierazi behar dut eskabidean?

Eskabide-inprimakian, «Laguntzaren xede den establezimenduaren datuak» atalean, establezimendua alta emanda dagoen JEZren epigrafe nagusia adierazi behar da. Ondorio horietarako, epigrafe nagusizat hartuko da itxitako azken ekitaldian negozio-zifraren zenbateko garbi handiena sortu duena.

Eskabidearekin batera, eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, epigrafe nagusia eta itxitako azken ekitaldian jarduera bakoitzari egotz dakioken negozio-zifraren zenbatekoa identifikatuz. Merkataritza Zuzendaritzak hori egiaztatzen duen dokumentazio fiskala edo kontablea eskatu ahal izango du.

9.- JEZren epigrafekoa izateaz gain, zer baldintza osagarri bete behar ditut?

Besteak beste:

- a) Pertsona juridikoa bada, mikroenpresa edo enpresa txikia izatea.
- b) Laguntzaren xede den establezimendua kale-oinean, jendaurrean irekita eta funtzionamenduan egon behar da, EAEn, eskabidea aurkezten den egunean.
- c) Jarduera ekonomikoak egoitza soziala eta fiskala EAEn izan behar ditu.
- d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, dirulaguntza emateko, emateko eta likidatzeko edo likidatzeko ebazpena baino lehen.
- e) Dirulaguntza emanez gero, Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan alta emanda egotea.
- f) Diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketarik ez egitea konprometitzea.
- g) Enpresa-deslokalizaziorik ez egitea konprometitzea (20/2023 Legearen 49. art.).
- h) Armak ekoizten, merkaturatzen edo finantzatzen ez aritzea (14/2007 Legea), eta 20/2023 Legearen 13. artikuluko debekuetan edo 4/2023 Legearen 82. artikuluko egoeretan (pertsona transen berdintasuna eta LGTBI eskubideak) sartuta ez egotea.

10.- Nola eman dezaket alta Hirugarrenen Erregistroan?

Eskabidea aurkezteko unean, pertsona edo entitate eskatzaileak Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan sartu beharko du, dirulaguntzaren kobrantza jaso nahi duen banku-kontua jakinarazteko —edo, hala badagokio, aldatzeko—. Izapidea telematikoki egiten da, onartutako identifikazio elektronikorako bitarteko batekin, honako esteka honetan: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenak>

Ezin izango da dirulaguntzaren ordainketa egin izapide hori bete arte.

11.- Laguntza ordezkari bidez eskatuz gero, zer dokumentazio osagarri aurkeztu behar dut?

Ordezkaritza bidez jardun nahi izanez gero, ordezkari bidez beste pertsona bati eman ahal zaio honako bitarteko hauen bidez:

- a) Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko egoitza elektronikoa kokatua (<https://www.euskadi.eus/ordezkaritza/>).



- b) «Borondatezko legezko ordezkari-tza egilesteko inprimaki normalizatua» ([borondatezko legezko ordezkari-tza egilesteko inprimaki normalizatua](#)), behar bezala formalizatua, eskabidearekin batera erantsi beharko dena.

Eskabidearen sinatzaileak bat etorri behar du «Borondatezko legezko ordezkari-tza egilesteko inprimaki normalizatua» ordezkari-tza onartzen duen pertsonaren datuekin, edo Ahalordetzeen Erregistro Elektronikoa baimendutako pertsonarekin.

12.- Zer baldintza bete behar dituzte inbertsioek eta diruz lagundu daitezkeen aktiboek?

- Laguntzaren xede den establezimenduan kokatzea, kale-oinean, jendaurrean irekita eta funtzionamenduan dagoena.
- Enpresaren aktiboan lehen aldiz sartzea eta fisikoki establezimenduan edo haren eranskinetan egotea.
8. oinarriko atalen barruan egotea.
- Erabat beharrezkoak izatea eta jarduera nagusiarekin zuzenean lotuta egotea.
- Benetan egindakoak eta diruz lagundu daitezkeen aldia (2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 15era) fakturatuak izatea, baita 20. oinarrian ezarritakoaren arabera ordainduak ere.

13.- Zer hartzen da eranskintzat?

Eranskintzat hartuko dira establezimenduarekin fisikoki ondoan dauden espazioak, titular berari juridikoki lotuak eta soilik jarduera nagusiari atxikiak. Diruz lagundu beharreko inbertsioa eranskinean ere egiten bada, alderdi hori memorian adierazi beharko da, establezimenduaren eta eranskinaren argazkiekin batera, biak ondoan daudela egiaztatzeko.

14.- Noiz arte mantendu behar dut diruz lagundutako aktiboa?

Aktiboak laguntzaren xede den establezimenduan iraun behar du, fakturaren datatik aurrera, gutxienez bi urtez, eta ezin izango zaie hirugarren pertsona fisiko edo juridikoei laga aldi horretan.

15.- Inbertsioa «bigarren eskuko» aktibo baten gainean egin daiteke?

Bai, baldin eta 7. oinarriko diruz lagundu daitezkeen inbertsioaren baldintzak betetzen baditu.

16.- Zein dira fakturen eta ordainagiriaren diruz lagundu daitezkeen aldiak?

Diruz lagunduko dira:

- 2025eko urriaren 1etik 2026ko irailaren 15era bitartean egindako fakturak.
- Ordainagiriak: fakturaren kontura egindako aurrerakinak, 2025eko uztailaren 1etik eskabideen aurkezpen-epea hasi aurreko egunera arte ordainduak; eta eskabideen epea hasten denetik 2026ko azaroaren 16ra arte ordaindutako ordainketak.

17.- Zein da fakturen onartutako gutxieneko zenbatekoa?

100 eurotik gorakoa (BEZik gabe), inbertsioaren deskribapena argi identifikatuta (ez dira onartzen kode bidezko kontzeptuak).

18.- Nola justifikatu behar ditut ordainketak, 1.000 €-tik gorakoak nahiz beherakoak?

Erabilitako ordainketa-modua edozein dela ere, egiaztasun argi identifikatzeko aukera eman behar du sei datu hauek: agindu-emailea, hartzailea, fakturaren zenbakia, kontzeptua, zenbatekoa eta ordainketaren data.



Agindu-emaileak laguntzaren eskatzailearekin bat etorri behar du. Eskatzailea ondasun-erkidegoa edo sozietate zibila denean, ordainketa entitateak berak edo bere kideetako edozeinek egin dezake.

Banku-bitartekoen bidez egindako ordainketak (transferentzia, txeke izenduna edo bestelako banku-bitartekoa). Justifikazioa honako dokumentu hauetako baten bidez egiaztatuko da:

- a) Banku-transferentzia.
- b) Hornitzailearen entitateak emandako banku-ziurtagiria.
- c) Agindu-emailearen kontutik funtsak benetan atera direla egiaztatzen duen banku-laburpena edo -egiaztatzea.
- d) Txeke izenduna bada, hura kobratu izana eta agindu-emailearen kontuan kargatu izana egiaztatzen duen banku-laburpena.
- e) Kasu horietan guztietan, ordainketa egiten den kontuak agindu-emailearen izenean egon behar du.

Eskudirutan egindako ordainketak (billeteak edo txanponak). 1.000 eurotik beherako ordainketetan baino ez dira onartzen, izan ere, iruzur fiskalaren aurkako prebentzio- eta borroka-neurriei buruzko uztailaren 9ko 11/2021 Legeak ez baitu eskudirutan ordaintzeko aukerarik ematen zenbateko hori edo handiagoak direnean. Kasu horretan, ordainketa hornitzailearen ordainagiriaren bidez egiaztatuko da —sinatua eta zigilatua, bere izena edo sozietatearen izena eta IFZ adierazita—, ordaindu dela espresuki jasotzen duen fakturarekin batera.

Aurkezteko epea. Ordainketaren egiaztatze guztiak eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira, edo dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi ondoren justifikaziorako emandako bi hilabeteko epean.

19.- Zein da establezimenduko onartutako gutxieneko inbertsioa?

- a) 3.000 euro (BEZik gabe), azpiegitura eta ekipamendua berritzeko inbertsioetarako (1. lerroa).
- b) 1.000 euro (BEZik gabe), teknologia berrien eta berrikuntzaren inbertsioetarako (2. lerroa).

Diruz lagundu daitezkeen puntu batean baino gehiagotan inbertsioak egiten badira, puntu bakoitzean onartutako gutxieneko inbertsio-zenbatekoa betetzen dutenak baino ez dira diruz lagunduko.

20.- Zer epe dut ordainagiria aurkezteko?

Eskabidearekin batera aurkez daitezke edo, gehienez, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik 2 hilabeteko epean, betiere 2026ko azaroaren 16ko muga-eguna errespetatuz.

21.- Zenbat eskabide aurkez ditzaket?

Eskabide bakarra laguntzaren xede den establezimendu bakoitzeko (ez pertsona edo enpresa eskatzaileko). Enpresa berak hainbat establezimendutan inbertsioak egiten dituenean, dokumentazio komuna lehen eskabidean baino ez da aurkeztu behar.

22.- Zein da laguntza eskatzeko epea?

Agindua BOPVn argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko irailaren 15era arte edo, hala badagokio, kreditua agortu arte.



23.- Eskabidearekin batera, zer dokumentu aurkeztu behar ditut?

Osorik betetako inprimakia eta, harekin batera:

- a) Eskatzailearen NANA edo AIZ (pertsona fisikoa) edo entitatearen IFZ (pertsona juridikoa, ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak).
- b) Eratze-eskritura osoak eta aldaketak (pertsona juridikoak) edo eratze-kontratua (ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak).
- c) JEZko alden eta bajen ziurtagiri historikoa (3 hilabete baino lehenago egindakoa).
- d) Inbertsioen fakturak eta ordainagiriak, halakorik baldin badago.
- e) Energia-efizientzia handiko etiketa, lokaleko klimatizazio-ekipoetan inbertsioak egiten badira (8.1.h oinarria).
- f) Diruz lagundu daitekeen ehunekoaren igoerak egiaztatzeko, irizpidearen arabera: altan dauden langileen txostena (ITA); Berdintasun/Adiskidetze Planaren egiaztagiria; merkataritza-elkarte bati lotuta dagoenaren ziurtagiria; energia-komunitate batekoa denaren ziurtagiria; eta dagozkion programetan parte hartu izanaren edo euskara-ziurtagirien adierazpena.
- g) Laguntza eskatzen den inbertsioen memoria deskribatzailea, honako hauek adierazita:
 - Inbertsio bakoitzaren ezaugarriak (zertan datzan).
 - Haren funtzioak (zertarako balio duen).
 - Establezimenduaren jarduera nagusiarekin duen lotura.
 - Halaber, hiru eskaintza eskatzea nahitaezkoa den kasuetan (40.000 €-tik gorako gastua BEZik gabe obretan edo 15.000 €-tik gorakoa zerbitzuetan) eta ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aukeratzeko ez bada, aukeraketa hori memorian justifikatu beharko da. 2026ko ekitaldian, salbuespen gisa, EZ dira eskatuko eskaintza desberdinak, baldin eta gastuak dirulaguntza eman aurretik egin badira.
 - Inbertsioa establezimenduaren eranskin batean ere egiten denean, memorian espresuki adierazi beharko da eta establezimenduaren eta eranskinaren argazkiak aurkeztu beharko dira, bi espazioak ondoan daudela egiaztatzeko.
- h) Erantzukizunpeko adierazpena.

24.- Zer faktura onartzen dira?

Eskabidea egiteko unean inprimakian aipatutako edo aurkeztutako fakturak baino ez dira onartuko.

25.- Noiz aurkeztu behar dut egiaztagiria?

Eskabidearekin batera erantsiko da eta, hori posible ez bada, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik gehienez bi hilabeteko epean, 2026ko azaroaren 16ko muga-eguna errespetatuz.

26.- Noiztik dira diruz lagungarri ordainagiriak?

Diruz lagunduko dira 2025eko uztailaren 1etik justifikazio-aldia amaitu arte ordaindutako ordainagiriak. Ordainketaren agindu-emaileak laguntzaren eskatzailearekin bat etorri behar du.

27.- Zer indarraldirekin egon behar du egindako JEZren Ziurtagiri Historikoak?

Egite-data ez da izango eskabidea aurkeztu den datarekiko 3 hilabetetik gorakoa.



28.- Nola egiaztatzen da energia-efizientzia handia?

Ekipoaren beraren energia-etiketaren bidez; etiketa horretan fabrikatzaileak ekipoaren energia-efizientziaren klasea adierazten du. Etiketa hori eskabidearekin batera aurkeztu beharko da, 8.1.h oinarriaren arabera.

29.- Zer diruz laguntzen da?

Enpresaren aktiboan lehen aldiz sartzan diren eta fisikoki establezimenduan dauden aktiboetako inbertsioak. Bi lerro bereizten dira:

1. lerroa. Establezimenduaren azpiegitura eta ekipamendua berritzea:

- a) Egokitzapen-, berritze- edo handitze-eraberritzeak, -obrak eta -instalazioak, baldin eta merkataritza-azaleraren egokitzapenari, banaketari edo irudiaren hobekuntzari eragiten badiete.
- b) Energia aurrezteko edo efizientziarako neurriak (ate automatikoak, instalazio elektrikoak, okupazio-sentsoreak, isolamenduak...).
- c) Irisgarritasunerako oztopo arkitektonikoak ezabatzea.
- d) Kanpoko errotulu identifikatzaileak eta toldoak.
- e) Jarduera nagusiarekin lotutako altzariak eta makineria.
- f) Ekipamendua eta altzariak.
- g) Alarmak eta segurtasun-sistemak (gehienez 6.000 euro, BEZik gabe).
- h) Lokaleko klimatizazio-ekipoak, energia-efizientzia handiko etiketarekin.
- i) Merkataritza-guneetako espazio eta elementu komunen hobekuntza (zati alikuota).
- j) Proiektua idazteko eta obra zuzentzeko gastuak, teknikari baimenduek eginak, obretarako beharrezkoak direnean.

2. lerroa. Teknologia berriak eta berrikuntza ezartzea:

- a) Ekipo informatikoak, kudeaketa-aplikazioak eta -softwarea (ekipo bat eta periferiko mota bakoitzeko unitate bat establezimenduko).
- b) Webgunea eta lineako salmenta (ecommerce, scommerce, mcommerce) edo establezimenduaren kudeaketa.
- c) Salmenta-puntuko terminalak eta kodetze- eta irakurketa optikoko sistemak.
- d) Balantza elektroniko komertzialak.
- e) Kutxa erregistratzaileak.

30.- Diruz lagungarria al da TicketBAI (TBAI) softwarea ezartzea?

Ez. Aurreko deialdietan ez bezala, 2026an TicketBAI fakturazio-softwarea ezartzea ez da diruz lagundu daitekeen kontzeptua, txikizkako merkataritzentzat sistema ezartzeko nahitaezko aldia diruz lagundu daitekeen aldia hasi aurretik amaitu baita. Horrekin bat etorriz, ez dira diruz lagunduko software mantentze-lanen, software-eguneratzeen edo tresna informatikoak erabiltzeko lizentzien gastuak ere.

31.- Diruz lagungarriak al dira arkitektoen, ingeniarien edo memoria teknikoan ordainsariak? Eta profesionalen aholkularitza?

8.1.j oinarriak ezartzen du diruz lagungarriak direla proiektua idaztetik, obra zuzentzetik edo arkitekto, ingeniari edo instalatzaile baimenduek egindako proiektuetatik eratorritako gastuak, baldin eta laguntzaren xede den establezimenduko obrak eta instalazioak egiteko beharrezkoak badira.



Ez da nahastu behar «profesionalen aholkularitzarekin» (9.2.f oinarria), hori bai baitago kanpoan: **aldea da proiektu teknikoa obra-espedientearen ezinbesteko zatia dela, eta kudeaketa- edo lege-aholkularitza, berriz, ez dela ezinbestekoa.**

32.- Nire inbertsioak zenbateko jakin batzuk gainditzen baditu, hainbat eskaintza eskatu behar ditut?

MEC 2026 kanpainan, salbuespen gisa, **EZ dira eskatuko eskaintza desberdinak, baldin eta gastuak dirulaguntza eman aurretik egin badira.**

Hurrengo ekitaldietan, eta 20/2023 Legearen 30.3 artikulua arabera, diruz lagundu daitekeen gastuak 40.000 euro edo gehiago lortzen edo gainditzen dituzenean obra-kontratuetan, edo 15.000 euro hornidura- edo zerbitzu-kontratuetan, eta hirugarrenekin kontratatzen denean, gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dira hornitzaile desberdinei aldez aurretik, salbu eta merkatuan ez badago nahikoa hornitzaile. Eskaintzak eskabidearekin aurkeztu behar dira; aukeraketa ekonomikoki onuragarrienean egiten ez bada, memorian justifikatu beharko da. Gainera, diruz lagundu daitezkeen gastuen kostua ezin izango da merkatuko balioa baino handiagoa izan.

33.- Ekipo informatikoen artean, zenbat dira diruz lagungarriak establezimenduko?

Ekipo informatiko bat baino ez, baita periferiko mota bakoitzeko unitate bat ere, establezimenduko.

34.- Diruz lagungarriak al dira merkataritza-guneetako edo udal-merkatuetako establezimenduetan, kale-oinean ez daudenak, egindako inbertsioak?

Bai, diruz lagungarriak dira 8. oinarriko 1. puntuko i) apartatuaren arabera.

35.- Zer inbertsio eta gastu ez dira diruz lagungarriak?

Inola ere ez dira diruz lagunduko honako inbertsio hauek:

- Lokalak eta traspaso-eskubideak erostea.
- Garraio-elementuak, telebistak edo telefono-terminalak erostea.
- Ekipamendua leasing edo renting bidez eskuratzea.
- Erakusketa- eta proba-artikuluak, edo salgai jartzeko modukoak.
- Argiteria soilik aldatzea.
- Establezimenduaren irudiaren berritze argi eta zuzena ez dakarten eraberritzeak.
- Enpresa eskatzaileak berak fabrikatutako edo garatutako elementuak.
- Eraberritzeak, obrak edo instalazioak baliabide propioekin egiteko materialak.
- Gastutzat eta ez inbertsiotzat hartzen diren ekipamenduak eta tresneria.

Inola ere ez dira diruz lagunduko honako gastu hauek:

- Garraio-kostuak, aseguruak eta baimen, baimen-agiri eta lizentziatarako tasak.
- BEZa eta, oro har, edozein zerga, tasa edo kontribuzio.
- Aktibo baten elementuak mantentzea, konpontzea edo ordeztzea.
- Bulegoko materiala, tresneria edo antzekoak.
- Dekorazio-gastuak.
- Profesionalen prestakuntza eta aholkularitza.
- Software mantentze-, eguneratze- edo erabilera-lizentzien gastuak (kentzen da lehen gastu horiek TicketBAIra ezinbestekoak zirenean onartzen zituen salbuespena).
- Publizitate- eta webguneen posizionamendu-gastuak.



Inola ere ezin izango da eskuratze-kostua merkatuko balioa baino handiagoa izan (20/2023 Legearen 30.1 art.).

36.- Inbertsio guztiak eskabide berean jaso behar ditut?

Bai. 1. lerroko zein 2. lerroko inbertsioak eskabide bakarrean jaso behar dira.

37.- Diruz lagungarriak al dira aktibo baten aldizkako mantentze-gastuak?

Ez, 9. oinarriaren arabera.

38.- Eraberritze, obra edo instalazioetarako materialak erostea diruz lagungarria al da?

Diruz lagungarria da eraberritze, obra edo instalazio hori egin duen hornitzailearen faktura aurkezten bada. Baliabide propioekin egiten bada (lanen fakturarik gabe), ez da diruz lagungarria izango, 9. oinarriaren arabera.

39.- Zein da laguntzen zenbatekoa?

Inbertsioak inbertsio onargarriaren gaineko % 40rekin lagunduko dira diruz. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 10.000 eurokoa da establezimenduko.

40.- Diruz lagundu daitekeen ehunekoa handi dezaket?

Laguntzaren oinarritzko ehunekoa % 40koa da (39. galdera). Honako irizpide hauen arabera egiaztatzen den puntu bakoitzak dirulaguntza ehuneko-puntu 1ean handitzen du. Igoera % 52an mugatuta dagoenez, ez da beharrezkoa irizpide guztiak egiaztatzea gehieneko ehunekora iristeko:

- a) Euskadiko Merkatarien Elkarten Erroldan inskribatutako merkataritza-elkarte bati lotuta egotea, inbertsioak iraun beharreko denbora bezain luze edo luzeagoz: **3 puntu.**
- b) 1. lerroan jasotako inbertsioa (azpiegitura eta ekipamendua berritzea): **2 puntu.**
- c) 2025ean energia-komunitateetan parte hartzea: **2 puntu.**
- d) 2025ean «Merkabide», «Retail Euskal Eskola» edo «Eus-commerce» programetako batean gutxienez parte hartzea: **puntu 1.**
- e) Emakumearen enpleguaren egonkortasuna (plantillaren erdiak gutxienez kontratu mugagabea eta emakumeak): **puntu 1.**
- f) Berdintasun- edo Adiskidetze-plana izatea, edo Berdintasuneko Entitate Laguntzaile gisa aitortua izatea (Emakunde edo beste administrazio bat): **puntu 1.**
- g) Kontsumobideko Arbitraje Sistemari atxikitzea: **puntu 1.**
- h) 2025ean «Berriz enpresa» programan parte hartzea: **puntu 1.**
- i) Establezimenduko merkataritza-jardueraren 10 urtetik gorako antzintasuna: **puntu 1.**
- j) Jendaurrean euskaraz aritzea (Bai Euskarari, Bikain 2025ean edo «Euskaraz barra-barra»): **puntu 1.**

Inola ere ezin izango da dirulaguntzaren ehunekoa, igoerak barne, onartutako inbertsio guztiaren % 52 baino handiagoa izan.

41.- Zer dokumentazio egiaztatuko du ofizioz organo instrukzio-egileak?

Besteak beste, Merkataritza Zuzendaritzak bere elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez egiaztatuko ditu: nortasuna (NAN edo AIZ) edo IFZ; egoitza soziala eta fiskala; JEZren ziurtagiri historikoa; zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea; ordezkari-ahalordea; Merkataritza Zuzendaritzaren programetan parte hartzea; Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikitzea; eta euskara-ziurtagiriak. Espresuki aurka eginez gero, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da.



42.- Itzuli behar dudan dirulaguntza da?

Ez. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntza da; beraz, ez da itzuli behar. Hori bai, haren kobrantza arau erregulatzaileetan jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzeari lotuta dago.

Hala ere, baldintza horiek ez betetzeak laguntza osorik edo partzialki itzuli beharra ekar dezake. Itzulketa osoa kasu hauetan dagokio: inbertsioa ez egotea, diruz lagundutako ondasunak ez aurkitzea edo datuak faltatzea. Itzulketa partziala ez-betetzearen mailaren arabera proportzionalki zehazten da; adibidez, egindako inbertsioa diruz lagundutakoa baino txikiagoa bada, egin gabeko zatiaren proportzioan kalkulatzen da.

43.- Nire udalerrriak edo Lurralde Historikoak beste laguntza bat deitu du, eska dezaket?

Bai. Bateragarria da administrazio publikoen edo entitate pribatuen helburu bererako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek, gainfinantzaketarik ez badago. Merkataritza Zuzendaritzari jakinarazi behar zaizkio eskatutako edo jasotako laguntzak.

44.- Nola komunikatzen naiz administrazio kudeatzailearekin?

Eskabidearen ondorengo izapideak (jakinarazpenak, errekerimenduak, dokumentazioa aurkeztea eta abar) egoitza elektronikoko «Nire karpeta»ren bidez egiten dira (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

45.- Nola jakingo dut laguntza eman zaidala?

Ebazpena banan-banan jakinarazten da «Nire karpeta»ren bidez. Emakida jakinarazi ondoren, herritarren karpetan laguntza onartzeko botoi bat agertuko da. Jakinarazpenetik hamar egun naturaleko epean espresuki eta idatziz uko egiten ez bazaio, onartutzat joko da. Horrez gain, pertsona onuradunen zerrenda eta emandako zenbatekoa egoitza elektronikoko iragarki-oholean argitaratuko dira (ez BOPVn, aurreko urteetan egiten zen bezala), 20/2023 Legearen 26. artikulua arabera.

46.- Zer epe du Administrazioak ebazteko?

Merkataritza Zuzendaritzak eskabideak hurrenez hurren ebatziko ditu, espediente bakoitza eskatutako dokumentazio zuzen eta osoarekin osatzen den ordenaren arabera.

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabidea osotzat jotzen den datatik aurrera. Epe hori ebazpenik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, pertsona edo entitate interesdunak bere eskabidea administrazio-isiltasunez ezetsitzat jo ahal izango du, organo eskudunak berriazko ebazpena emateko duen betebeharra galarazi gabe.

47.- Zer gertatzen da nire eskabidea kreditua agortzeagatik ezesten bada?

Deialdiaren aurrekontua agortzen denean, ondorengo eskabideak arrazoi horregatik ezesten dira, edukia edozein dela ere (18.5 oinarria). Gora jotzeko errekursoa aurkez daiteke hilabeteko epean, baina errekursoak ez du berez kreditu gehigarririk sortzen. Gomendioa: eskabidea ekitaldi bakoitzaren epearen hasieran aurkeztea, dokumentazio guztia hasieratik behar bezala justifikatuta.

48.- Noiz egiten da laguntzaren ordainketa?

Ordainketa bakar batean, emateko eta likidatzeko ebazpenaren edo likidazio-ebazpenaren ondoren, onarpen-epea uko espresurik gabe igaro ondoren, eta zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea eta Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta egotea egiaztatu ondoren.

**49.- Noiz egin diezaioket uko emandako laguntzari?**

Onarpenaren ondoren egin ahal izango zaio uko. Ordainketaren bat egin bada, ordaindutako zenbatekoa gehi berandutze-interesak itzuli beharko dira. Ez da onartuko uko egitea, behin ez-betetze- edo zehapen-prozedura baten hasiera jakinarazi ondoren.

50.- Erantzukizunpeko adierazpenean, beste laguntza batzuen atalean, noiz aplikatzen da minimis araubidea?

Aurreko hiru urteetan jasotako minimis laguntzak adierazi behar dira. Minimis araubidea Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduak arautzen du, enpresa eta estatu kide bakoitzeko gehienez 300.000 euroko mugarekin hiru urteko aldian.

51.- Traspaso- edo jarduera-uzte kasuetan, zer datatan da diruz lagungarria inbertsioa?

Inbertsioa diruz lagungarria izango da laguntzaren eskatzailea JEZn alta eman zen datan.